

Nafar karia

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko otsailak 5 / III. urtea / 61. zenbakia

Zirardaren aldaketa

Pasa den maiatzean Aita Santuari dimisioa aurkeztu zionetik, Jose Maria Zirarda Iruñeko artzapezpikua erreleboaren zain dago. Hamabost urte eman ondoren, 75 urteko bakiotar honek marka sendoa utzi du elizbarrutian, bere itzala ez


baita nolanahikoa izan, eta bere lanari buruz iritzi kontrajarrak aditu daitezke. Gogoko luketen ordezkorearen soslaia eginga dute dagoeneko elizen artean, eta askoren ikusmiran inoiz baino gertuago dirudien euskal elizbarrutia dago.

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Berrehun urtetik gora badu ere, bada Nicolas de Chamfort pentsalari frantsesaren esara bat, amorioa, aski ongi definitzen duena: 'Amorioa, gizartean ulertzen denaren arabera, bi fantasiaren truketa eta bi azalaren ukipena baino ez da'. Esan nahi baita, lehenik eta behin, arrazoiaren galbahetik pasa ezinezko sentimendu bat dela, eta beste sentimenduekin gertatu ohi den bezala, maitasuna, irrazionala den aldetik, goberna-ezina dela arrazoiagatik, beraren lege hestuetatik ihes egiten digulako, fantasian eztanda tarteko, harrokeriaz puzturik, 'fantasia' hitzaren egiazko esannahia, bestalde. Bada, beraz, maitemindu baino lehenagoko maila bat zer ikusirik ez duena maitemintzearen hurrengoarekin, eta hori hala omen da, amorioak zortzen dituelako maitaleak, beste oharren mundura ere daramatzalarik. Baina pipia bezalako harra ere bada amorioa, eta bi pertsona ukitzen ditue-nean, beraiek etzanda nahiz zutik egon, odol purukoak zein nahasi-koak, sastada hunkigarriez gozazten ditu extasiseraino eramanez. Azalaren ukitze hau ezinbesteko baldintza baita maitasuna bere osotasunean ager dadin. Halaz ere, eta abstrakzioetatik aldentzearen, badugu 'gizartean ulertzen denaren arabera' halako amodiorik praktikan jartzerik? Ez ote da ia ezinik suertatzen '0' eta '1' kodeez besterik komunikatzen den gizarte kartesiano eta fatalista honetan fantasiak elkarri trukatzea?... Bergarako 'Jardun' elkarteak ez dira, zorionez, aburu horretakoa, eta nahiz idatzi hutsez ez dagoen amorio bat osoki gauzatzeko modurik, lagungarri gerta daitekeelakoan edo, Amoriozko Gutun lehen lehiaketa eratu berri dute; gehienez bi foliotan nork bere fantasiak maitale errealedo irudizko horri kondatu ahal diezaizkion. Erridikulotzat joko du zenbaitek proposamena, poetari jarraikiz, amoriozko gutun guztiak erridikuloak baitira; baina, gutunik Institutuzio, Banku eta Publizitate Etxeetatik soilik jasotzen ditugun garai hauetarako, badu, bai, bere meritua Bergatarren gonbidapenak. Gutunak bidaltzeko helbidea: Bergarako 'Jardun' elkarte, Errokalde Jauregia, 20570. Bergara. Lanen aurkezpena, otsailaren 14 baino lehen... Amorioa zoroa eta erridiku-loa delako.



Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Mara Reguilón artistaren lanak ikusgai daude Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak Rodeznoko Kontea kalean duen aretoan. Bilbon jaiotako artista honen obra ikusteko lanegunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan, 12.30etatik 14.00etarako ordutegia dute. Otsailaren 21a arte iraungo du.

Fermin Arellano eskultorearen lanak ikusgai daude datorren otsailaren 14 arte, Tafallako Kultur ETxearen erakusketa aretoan. Deikaztelun jaiotako artista honen lanen erakusketa herriko Kultur Patronatoak antolatu du.

Itziar Purroy artistaren erakusketa zabalik dago gaurtik, datorren 21a arte. Margolari honen lanak ikusteko Lankide Aurrezki kutxak Sarasate ibilbidean duen aretoa jo behar da. Lanegunetan, 18.30etatik 20.30etara, eta jai egunetan, 12.00etatik 14.00etara dago zabalik.

ZINEMA



Telma eta Louise izeneko pelikula eskainiko dute datorren ostegunean, otsailak 11, Tafallako Español zineman, bertako Kultur Patronatoak antolatutik. Proiektzioak bi saio izanen ditu, arratsaldeko 20.00etan, eta gaueko 10.30etan. Sarrerak 175 pezetan eros daitezke.

'No me mientas que te creo'

ERRAN DUTE

Jatorriz euskal herritarra izan arren, muinetaraino espainola sentitzen naiz».

Pedro Ruiz de Alegria
Gobernuaren Ordezkarria

«Gazteak gara, baina joko onarekin edonori aurre egiteko moduan gara».

Patxi Eugi
Pilotaria

«Nik ez dut inolako plagiorik egin aurkeztutako lan horretan».

Rosa Alba Martinez
Margolaria

«UPNko Kongresuan hiru zerrenda aurkeztuko dira: berritzaileak, kontserbadoreak eta atzerakoiak».


Miguel Sanz
Gobernuko Lehendakariordea

Mesola mendian

Lizarara joateko aukera izango dugu berriro ere asteburu honetan. Napar Mendizaleen Elkartek antolatzen dituen ateraldien bitartez. Aragües del Puerto haranean kokatuta, lautada txikitatik dator kio izena Lizarari, eta bertatik atera eta ekialderuntz joko dugu segituan, Aisa mendatea lortzeko. Gure aurrean Bernera mendia agertuko da, harrizko horma izugarria.

500 metrotako desnibela gainditu behar izango dugu, nahiko erreza eta polita, hala ere. Lepoa gureganatu ondoren hegoalderantz abiatu behar dugu, Lizara harana eta Aisa amildegia ikusiz. Hemendik, lepo batetik, Mesola mendia azpian kokatuko gara 200 metro horiek gainditzeko: gailurra lortzeko, hain zuzen ere.

Mesolako tontorra izugarritzko balkoia da Piriniotako zati handi bat ikusteko. Gure pare-parean Visaurin, bere 2.668 metroekin,



Azpe, 2.700ekin, Collareda, eta abar luze bat. Beste aldetik, Aragües del Puerto harana, eta eguraldia ona izanez gero, Nafarroa-

ko zati handia ere ikus daiteke.

Leku honen edertasuna adierazteko, orein asko ikusi ditudala esatea besterik ez.

duaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolatutik. Ordutegia 9.30etatik 13.30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.

Nafarroa Kirol Elkartek. Astelehenean hasi, otsailak 8an, eta osteguna arte iraungo du. Patxi Ripa, Angel Oloron eta Javier Bergasa argazkilariek zuzenduko dute. Izena emateko, Elkartek Jarauta kalean duen egoitzara jo behar da.

Emakumea eta Boterea izeneko ikastaroa antolatu du GITE elkarteak datorren asterako, Nafarroako Gobernuak Emakumearen Azpizuzendaritzaren lagun-

tzarekin. Lau hitzaldi izanen dira, astelehenean hasi eta osteguna arte, Aurrezki Kutxa Munizipalaren aretoan, Armadaren etorbidean. Hitzaldiak arratsaldeko 7.30etan izanen dira eta gai desberdinak aztertuko dituzte.

BERTSO SAIOAK



Xabier Amuriza eta Andoni Egaña bertsolariak arituko dira bihar, otsailak 6, Iturenen. Emanaldia eguerdian izanen da, bazkal ostean, eta arrazoia bertan ospatzen ari diren ihauteriak.

Iñaki Murua eta Sebastian Lizaso bertsolariak arituko dira bihar, otsailak 6, Arantza herrian. Eguerdiz, bazkalostean eta arratsaldean arituko dira, herriko plazan eta Aterpe jatetxean.

BESTELAKOAK



'Patagonia: Darwinen hantzen gibeletik' gaiari buruzko diapositiben emanaldi bat izanen da gaur, otsailak 5, Nafarroa Kirol Elkartearen egoitzan, Jarauta kalean. Proiektzioa arratsaldeko 20.00etan hasiko da, eta Antton Iturizak zuzenduko du.

Urbasa, Andia, Entzia ezagutzeko, monumento megalitikoak, leze, ermita, bide, eta abarreko gauzei buruzko diapositiba emanaldi bat antolatu du Sakanako Kirol Batzordeak eta Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan eskainiko du. Emanaldia arratsaldeko 4.00etan izanen da, euskaraz.

IKASTAROAK



Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren aben-

Mendi Argazkilaritza ikastaroa antolatu du datorren asterako

ASTEKO PERTSONAIAK

Jose Antonio Gaiarre




Bardeetako presidentea

Fermin de Luis



Osasunako jokalaria

Angel Aldaz



Bertsolaria

Azkeneko zortzi urte hauetan bezala, hurrengo lau urtean Jose Antonio Gaiarre Bardeetako Batzarraren presidentea izanen da, pasa den astelehenean egin dako bozketan bera atera baitzen. Sekula ez da izan hainbeste borrokarik Batzarraren hauteskundeak baino lehen, aurtun, buzonean, irainak, taldeen akordioak, denetarik izan da, eta bozketak egunean, sei botazio egin behar izan zituzten presidentea izendatzeko, berdinketa ugarien ondoren. Orain, gauzak aldatu dira, inoiz baino oreka handiagoa dago indarren artean, eta Gaiarre akordioak egin beharko ditu.

Orain dela bi urte lesionatu zen Fermin de Luis jokalaria, ligako partidua batean, eta ordutik, bitan bakarrik atera da zelaira, azkeneko aldia iazko maiatzean. Belaunean hartu kolpeak eragin handia izan du, eta medikuek ez diote itxaropen gehiegirik ematen. Osasunarekin duen kontrataua ekainaren 30ean bukatuko da. «Nahiko desanimaturik eta tristeturik nago, baina futbolearen jarratzeak gai naizela erakutsi nahi dut», dio berak. Liga txapelketa honetan partiduren bat jokatze gogoak ditu, «baina amaiera aldera belauna ongi ez badut, erabaki bat hartu beharko dut».

Pasa den astean hil zen Angel Aldaz bertsolaria, bihotzekoak jota, azkeneko urteak zaharren egoitza batean eman ondoren. Ihaben Basaburuko herrian jaioa, zonaldeko ibar horietan aski ezaguna zen Aldaz, bertso bazkari eta afari gehienetan abesten zuelako. Artzaia, nekazaria, eta postaria izateaz gain, bertsolari aparta izan zen, eta bost txapelketetan parte hartu zuen, batean hirugarren postuan sailkatu gainera. Berak askotan azaldu zuenez, «12 urte nituenen eta artzai nenbilenean etorri zitzaizkidan kantatzeko ohitura, afizioa sartu eta kanpeonatu hasi nintzen».

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.



Ihauteriak negua berotzeko

ANA UNANUE / IRUÑEA

Moxotxorroak, txatxoak, zantantzarrak, mamuxarroak, mo-zorro beltz eta zuriak, ziripot, Miel Otxin... Emakunde, Andrakunde, Orakunde... Iñote, iote, iñaute, ihaute... Hamaika pertsonai eta horrenbeste izen eguneroko izaera utzi eta, urtean behin bada ere, benetakoa agertzeko. Joan zaizkigu Leitza, Sunbilla, Ituren eta Zubietakoak. Geratzen dira, hala ere, negu osoa berotzeko adina. Usadio zaharrekokoak batzuk, berriki berreskuratuak besteak. Barkamena aldeztu aurretik hemen agertzen ez diren guztiei: paperak ihauteriak ezagutzen ez dituen mugak ezartzen ditu. Garizuma ez dugu tajuz betekoz ez, baina aurrekoa...

Arantzan atzo hasi eta igandera arte iraungo dute jaiek. Maskadararen antzera, mo-zorro beltzak gaiztoak dira eta mo-zorro zuriak zintzoak. Zuriak ihauteriak antolatu ohi dituzte; beltzak, berriz, aprobetxategiak dira eta haurrek eskean bildutakoak lapurtzen dute. **Urrotzen** gerra zela eta galdu egin ziren ihauteak. Orduz gero aurrenekoak, asteburu honetan ospatuko dituzte, puskak bilduz eta herri jatorduekin. **Berueten** gaur gauean ekingo diete ihautei eta asteburuan segida izango dute.



Ituren eta Zubietako adiskidetu zituzten berriro zantantzarrak.

JOXE LACALLE

Beran otsailaren 13an irtengo dute kaldereroek. Hilaren 18an haurren iñude eta artzaiak aterako dira, eskolek antolatuta. Nagusiak, berriz, hilaren 21ean. **Zigan** hilak 12, 13 eta 14 dituen. Ostiralean oilo-jokua egiten da, benetakoaren antzera.

Donezteben hilaren 18tik 21era bitartera. Igandean orga apainduen desfilea. **Tafallan** hi-

laren 20an ospatuko dituzte ihauteriak, kaletarrak baina ospe handia lortu dutenak. **Olaztin** hilaren 20an, goizez, izango dira herriko ihauteak. Arratsaldean, berriz, zamar txikiak eta handiak aterako dira. **Unanuan** haurrek ihaute igandea ospatzen dute. Helduek, berriz, asteartea.

Erriberrin iaz berreskuratu zituzten ihauteriak, Txibiri dan-

tza taldearen eskutik, eta aurreneko izango dira, ostegunean hasi eta igandera arte.

Arbizun otsailaren 23an neskak etxe etxe ibiliko dira, kantuan. Sasoi batean asteburuan hasten ziren ihauteak, Amin txikia eta Aittun haundiarekin. Gerra garaian ohitura galdu egin zen ordea. **Altsasun** hilaren 22an eta 23an momorrotxoak. Kaletarrenek 27an izango dute mo-zorrotxeko parada. **Arizkun** hilaren 22an, astelehenean, artza ikaragarria aterako da. **Goizuetan** zagi-dantza otsailaren 22an. **Elizondan** Orakundean hasiko dituzte. Arratsaldean, oilar-dantza herriko plazan. Haurrek, begiak estalita dituztela eta eskuan egurrezko ezpata daramatela, oilarra inguratzen dute. Lehen ikutzen duenak oilarra darama etxerat. **Erratzun** hilaren 22an, desfilea eta giro arras berezia.

Lantzen, hilaren 22an eta 23an. Euskal Herriko ihautei ospetsuenetan, Ziripoteak zaldikoa-oren ostikoak jasoko ditu, txatxoak hura babesten saiatu arren. Miel Otxin sutara zigortuko dute herriko plazako epailetan eta txatxoek eta herritarrek bere heriotza mutil-dantzaren doinuaz ospatuko dute. **Lesakan** azkenik, ostegunean hasiko dira haurrak eskean («arraultze arraultze; zingar arraultze; batezpada, bertze»). Igandean zaku-zaharrak izango dira.



BASABURUA. Imotz eta Ultzama inguruko euskara zerbitzuak, euskaltegiek eta kultur-gizarte animatzaileek batasunak indarra egiten duela erakutsi dute behin berriro. Denak elkartu dira aspaldidanik buruan zuten asmoa gauzatzeko: euskarazko aldizkaria, bertatik eta bertakoentzat egina. 'Pulunpe' du izena eta abenduaz gerotik kalean dago. Dagoeneko bigarren alea prestatzen ari dira. Piska bat laguntzera animatuz gero, hona hemen beraien telefono zenbakia: 30 65 03.



ZUDAIRIKO arrain haztegiak isuritako produktu kimikoek Urederra ibaiako ehundaka amuarrainen heriotza eragin du. Inzurako hondartza bertan hirurogeitamar inguru aurkitu zituzten. Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak «gauza naturala» zela esan zuen astelehenean. Haren arabera, amuarrainak ugaltzeko esfortzuaren ondorioz hil ziren, 'forunculosis' gaitzak jota. Badirudi, ordea, egiazko arrazoiak ez dela hain poetikoa. Hildako amuarrainei egindako azterketan aztarna arreak atzeman dizkiete azalean. Gainera, Zudairitik gorako zatian ez dute hildako amuarrain bakar bat ere aurkitu.

IRUÑEKO Udalak aurtengo Sanferminetako kartela aukeratzeko eratu zuen epaimahairi ziria sartu diote, bai ongi sartu ere. Bigarren saria, erdi bana, Txema Sanz Irúnsemeak eta Rosa Alba Bartzelonatarak eraman zuten. Bigarren honek 'Topico tipico' izeneko lana aurkeztu zuen eta, egia esan, topikoa baino topikoagoa gertatu zen, Gerald Bustamante estatubatuarrek duela hiru urte egindakoaren berdina baita. Saria kendu egin ziotela jakitean, bere «harridura» agertu zuen Albak. Cesarren emaztearena ikasiko zuen honez gero Bartzelonakoak: jatorra izatea ez dela nahikoa alegia, jator itxura erakutsi behar dela.

Altsasu

Santa Ageda

Giro ezin hobea izango da asteburu honetan Altsasun. Gazteek zortzikoak eta beren musikak dantzatzen duten bitartean, aurreko urteetako kinto zaharrak bapo bazkalduta arituko dira kalez kale egun osoan zehar, trikitixa eta guzti —hamar urte bete dutenendako—.

Santa Ageda egun aparta da altsasuar orrendako, eta galde-tuz gero, inoizko parrandanrik ederrena izan dela esango dizute askok. Hiru egunetan herriko erregea, kintoek edozertarako beta daukate orduan, eta tradizioa eta giro ona elkartzen dira inon baino hobeki. Aurreko nesken afera atera da, urtero bezala. Haiek parte hartze zuzenagoa eskatzen dute festan, eta jaia mutikoekin batera ospatu. Urteak urte ere mutikoek ezetz, haiena dela festa, nahiz eta gero, ixilean, ados egon. Askori gogoratu beharko zitzaion hasieran nesken festa zela Santa Ageda, ez alferrik moztu baitzizkioten bularrak, eta tradizioak aldatzeko daudela, izan ere. Inor ez dadila horren atzetik ezkuta.

ARTXIBOA



IMOTZKO UDALA

Udal honek, Imotzko Arau Subsidiarien Proiektuaren egitea, lehiaketa bidez adjudikatuko du.

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duenak, otsailaren 24a baino lehen bere eskaria eta beharrezko dituen dokumentazioa Udaletxean aurkeztu beharko ditu.

Imotz, 1993ko otsailaren 2an. ALKATEA



Xabierraldietan elkartuko gara» esan zion duela gutxi Tagliaferri Espainiako nuntzioak Jose Maria Zirarda Iruñeko artzapezpikuari, izendapen berria ekaina baino lehen ez dela izango baieztatuz. 75 urteko bakiotar honek pasa den maiatzean aurkeztu zuen dimisioa, eta Nafarroako elizbarrutira etorriko denari buruz izen asko bota badira ere, Fernando Sebastian Granadako apezpikuaren izena agertzen da kiniela guztietan. Erromako ikusmiran Euskal elizbarrutia ere omen dago, izan ere.

tzean aurkeztu zuen dimisioa, eta Nafarroako elizbarrutira etorriko denari buruz izen asko bota badira ere, Fernando Sebastian Granadako apezpikuaren izena agertzen da kiniela guztietan. Erromako ikusmiran Euskal elizbarrutia ere omen dago, izan ere.

Artzapezpiku bila


ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Iruñeko artzapezpikuaren dimisioak ohizko jakinmina eta zalaparta sortu du fededun eta fededun ez direnen artean, Espainiako Apezpiku Batzarraren erreleboa eta inguruko beste apezpikuen aldaketekin batera izateaz gain, bakiotarraren itzalak zeharo estali baitu hamabost urte hauetan Nafarroako elizbarrutia. Artzain makila hartu zuean egoera zail samarra aurkitu bazuen ere, gehienek begirunea bereganatu du urte hauetan bidaiari nekaezin honek, baina, askoren ustetan, konpondu gabe utzi ditu bi gai nagusiak: euskal elizbarrutiarena eta elizaren barruko soberazko hierarkizazioarena.

1917ko maiatzaren 23an Bizkaiko herri batean jaioz gizon honek duen energia eta izaera indartsua «inguruan dituenak menderatzerainokoa» nabarmentzen dute denek. Horri esker, Nafarroako herri gehienak ditu bisituak, eta administrazioa eta goi mailako harreman estu eta onak utzi ditu. Horrek, baina, jendearekiko behar bezalako harremanak osatzen galerazi diola uste dute askok. «Bi apezpiku mota izaten dira» azaldu du Juan Apezetxea teologoak «asko bidaiatu eta ateratzen direnak, harremanetarako onak direnak, eta lan ezkutuak egiten dutenak. Gurea lehendabizikoetakoa da, eta jendearekiko harreman handiagoaren falta sumatu da, akaso». Artzapezpikutza ongi ezagutzen dutenen artean langile amorratua eta nekaezinaren irudia dauka, baina aztertzeke orduan iritzi desberdinak aditu daitezke. Batzuek gehiegizko protagonismoa hartu duela diote, baina beste batzuek Nafarroan dauden sentimenduen ezberdinen artean moldatzeko dohaia goraipatu dute.

NAFARROAKO TEOLOGIA FAKULTATEA

Bere lana aztertzean ere aburu kontrajarriak daude. Seminarioa berpizteko egindako bere ahaleginei esker gairitu zen kritikoa zen egoera, baina batzuek Nafarroan Teologia Fakultatea eraikitzeke indar nahikoa egin ez izana leporatu diote. «Opusek irabazi zuen borroka, eta hemen aurre egin nahi zion horri», diote Teologia Fakultatean. Hain zuzen ere, Opus Deirekin duen harreman eskasak izan dira beste ezaugarrienetako bat. Escribe de Bala-



Zirarda artzapezpikuaren aldaketa ekaina aldera izango omen da.

JOXE LACALLE

gerren beatifikaziora joan aurretik garbi esan zuen: «Ni ez naiz eskola honetakoa», eta independentziari ongi eutsi diola azpimarratu du Juan Pedro Urabaien Pastoralteko Kontseilu Iraunkorrekoak. «Ez dio Opusi betarik eman eta bakoitza bere lekuan dago gaur egun. Izan ere, Nafarroan ez da Opus Deiren apaizik». Halaber, 1991ko azaroan aspaldian eskatutako Euskal Pastoral Idazkaritza sortu zuen, horren inguruko gai guztiak bideratzeko.

Artzapezpikua izendatzeko azken erabakia Aita Santua eta Espainiako Nuntzioen esku dago, eta azken honek hirukote bat proposatu ohi du. Nolanahi ere, eta elizbarrutien partaidetza oso eskasa izaten bada ere, Nafarroa-

ko eliza guztien artean gogoko izango zuten Zirardaren ordekoaren soslai prestazten aritu izan dira dimisioa ezagutu zene-

Nafarroako elizek gogoko izango zuten soslai prestatu dute eta bertan bi eskaera nagusi daude: nafar kultura eta euskararekiko sentsiblea eta ardurak banatzearen aldekoa izatea.

Bildutako erantzunak Pastoralteko Kontseiluan —apaiz eta laikoez osatutakoa— eztabaidatu ziren, eta bertatik txosten bat osatu berri da. Erromara bidaltzeko. Hiru dira bertan azpimarratu diren artzapezpiku berriarendako ezaugarriak: lehendabiziz, nafar kulturarekiko sentsibilitatea izatea, eta «ahal dela», euskaldun izatea; bigarrenik, ardurak banatzearen aldekoa izatea, kontseiluen betebeharrak bultzatuz; eta hirugarrenik, elkarriketarako irekia izatea.

ELKARRIZKETA ETA EUSKARA

Soslai honetan Nafarroako elizbarrutian antzeman daitezkeen arazo nagusietakoei irtenbidea eman

nahia dago jaso. «Euskararena ez da Nafarroako elizak duen arazorik nagusiena, jakina» dio Jesus Elso Zizur Nagusiko parrokiakoak, «baina bai puri-purian dagoena». Izan ere beste toki askotan bezala, iskanbila franko izan dira urte hauetan euskararekiko aipamenak izan orduko, eta batzuek «askoz gauza gehiago» egin izan zitezkeela azpimarratu badute ere, egoera lehen baino franko hobea dela dirudi. «Bere jarrerari esker orain normalizat hartzen da leku askotan euskararena» dio Apezetxeak, «eta lehen oso gaizki ikusita zegoen».

Hainbat arloren arteko elkarriketaren beharra ere denek azpimarratu dute, baina arazoa egiturarena berarena dela dio teologo batek. «Kontseilu guztiek kontseilua emateko baino ez dute balio, eta benetako erabakiak, azkenean, bakar baten esku egoten dira beti. Egitura aldatzen ez bada, ez dago zereginik. Izan ere, eliza burua da, eta gainontzekoa, morroiak».

EUSKAL ELIZBARRUTIA LASTER

Jose Maria Zirarda elizbarrutiaren burua izan den hamabost urte hauetan, halaber, euskal apezpikuekin edukitako harremana izan da gai eztabaidatuenerako bat. Elkarrekin egindako pastoralek eta hainbat gaietan izandako harremanek ez dute gauzatu askok amesten duten Euskal Elizbarrutia, baina horretarako bidea prestatzen hasia dela antzeman daiteke. «Hasieran batez ere, tentsio handiak izan ziren harremana hori zela eta» azaldu du Urabaienek, «baina orain horrela behar duela izan nahiko onartutako ideia da». Apezetxea ere antzera mintzatu da. «Apaizen artean ez dago horri buruz inolako eragozpenik, eta hori legez indarrean jarri behar da, uste zabala baita. Euskal Elizbarrutia etorriko da, eta ez da luze berandutuko».

Elizbarruti honetan Hego Euskal Herriko lau lurraldeak bilduko lirateke, Iruñeko Artzapezpikutza buruaren menpe, eta bertako burua izateko Fernando Sebastianaren izena agertzen da toki orotan. Bere alde Opusekin duen harreman onak eta bere maila intelektuala aipatzen da Artzapezpikutza, eta batzuen ustez horrela lortuko litzaiteke Jose Maria Setien Donostiko apezpikuaren balizko igoera galaraztea.



Iñauteriak

● Gan den aldian aipatu nuen San Anton eta oraingoan inauterietako zerbait aipamen. Aspaldiko denboretan, Iñaute aitzineko hiru ortzegunek bazituzten beren izen ta ospakizun. Lehenbiziko ortzegunari Gizekunde deitzen zioten (Izekunde ere bai) eta ortzegun huntan gizonek egiten zuten besta, bigarren ortzegunari Emakunde deitzen zioten eta emaztekiek egiten zuten beren bilgune eta otordua. Hirugarren ortzegunari orakunde eta ororen besta zen.

Gaurko egunean eta gure oroitzean ere ortzegun huntan Baztango herrietako haur guziak egiten dute besta eta bakotxa beren herrietan. Egun huni Arizkun 'Egun ttun ttun' deitzen diote eta Erratzun 'Ollar dantza'.

Aixtion aipatu ditudan bi lehenbiziko ortze-

gunetako ospakizunak aspaldion desagertu ziren, guk ez ditugu ezagutu. Ondotik ditugu Iñauteak hiru egun. Herrietako gazte taldeak beren soñulariekin etxez etxe ibiltzen ziren eta hauzoz hauzo 'puskek biltzen' eta holaxe hiru egunetan. Biltzen zuten puskekin (arrolte, zinger, txistor) eta ematen zuten yariarekin egiten zuten otordue. Ohitura hau oraindik ere bizirik dago eta gazteek egiten dute beren ibilaldi eta puske biltze. Behar bada hortan ere aldakuntza pixka bat nabari da baina zenbait herrietan beñipin ohitura horrela bizirik irauten du.

Iñautetan soñua plazan hiru egunez. Gure gazte denboretan duela 60 urte, plazako soñua ilunabarra arte izaten zen eta ilunezkilekin batera plazako soñua gelditzen zen. Orain berriz ilunabarrean hasi eta eztagu noiz akitzen den. Denborak aldakuntza haundiak egin ditu, batez ere etxera erretiratzeko tenorean. Gure plazako soñua ilunabarra arte izaten zen gure haurtzaroan eta ilun-ezkiak yotzen zuenean denak etxera batez ere neskatiok, anbateko larderie izaten baiginen aspaldiko denbora haietan.

Gure eskualdean Iñaute famatuak badira eta ohitura zaharrean irauten dutenak, horien artean: Baztanen Arizkun. Malerrekan Ituren eta Zubieta. Bortz Hirietan, Lesaka eta Bera. Ez dugu utzi behar aipatu gabe Lantz-ko Iñauteriak Euskalerrian diren Iñaute famatuenetakoak, ospe haundikoak eta pertsonaiak ere bereziak: 'Miel Otxin', 'Ziripot' eta gañerakoak.



Izen franko eta uste gehiago postu bakar baterako

A. B. / IRUNEA

Espainiako Apezpiku Batzarra izango da heldu den otsailaren 15ean Madrilen, eta bertan bi kardinalak, hamahiru artzapezpikuk eta hirurogei bat apezpikuk Espainiako Elizaren burua izango dena aukeratzeko dute: Angel Sukia euskaldunaren tokia beteko duena, alegia. Elizaren goi mailako kargu eta erabakien inguruan izaten ohi den isiltasuna batere apurtu gabea, hautagaien izenak asmatzea 'uste', 'omen' eta 'antzaz' betetako jokua da, Jesus bat ere ez esateko ohitura baitute aferan partehartze zuzena dute.

Horregatik, eliz gaietan adituek hasiak dituzte aspaldian euren kinielak, eta izenak bota, bota egiten dituzte. Hasieran zeuden guztietatik gaur egun bi agertzen dira gehienetan: Elias Yanes Zaragozako artzapezpikua eta Ricardo Maria Carles Bartzelonakoa, eta ia segurtzat jotzen da azkenean horietako bat izango dela aukeratua. Bidean gelditu dira Fernando Sebastian Granadako apezpiku lagunkidea eta Agustin Garcia Gasco Valentziako artzapezpikua, arrazoi ezberdengatik.


Izendapen honek funtsezko garrantzia izango du apezpiku eta artzapezpiku berrien tokiak betetzeko orduan, ardura hori praktikan Aita Santuaren eskuetan izanda ere, proposamen zehatzak

konferentziaren burua eta Espainiako nuntzioengandik sortzen baitira. Azken honen betekizuna da, hain zuzen ere, Espainiako Elizaren ezaugarrietako bat. Angel Sukia eta Mario Tagliaferriren artean Erromara begira dagoen Eliza sortu dute azken urteotan, «munduko Elizarik vaticanistena», zenbait teologoren esanetan, eta izendapen guztiak haien eskuetatik igarotzen dira. Hori dela eta, normalean ez da ustekaberik gertatzen, eta Iruñeko Apezpikuterian behin eta berriro azaltzen dute izen berriari buruz «deus ez» dakitela.

Hala ere, izen batzuk atera dira dagoeneko argira, eta denek ahotan darabilzkite. Egunkari honek kontsultatutako iturri guztiek «ustekak» baino ez direla azpimarratu dute, baina bota ere bota dituzte izen batzuk.

SEBASTIAN ETA ARAMENDIA

Fernando Sebastian Granadako apezpiku laguntzailea eta Malagako administrari apostolikoa da Iruñera etortzeko gehien aditu den izena. Hain zuzen ere, duela aste batzuk Iruñean izan zela eta Zirardarekin berarekin elkarrizketatu zela zabaldu zen, eta zenbait artzapezpiku berria izan zitekeela ere iragarri. Hala ere, benetan gertatu zena askoz ere bitxiagoa izan zen. Taxista batek izen berbera zuen bidaiaria jaso zuen Iruñean, eta lagun zuen apaizari kontatu. Ho-



Goian, eskuinetik hasita, Sukia eta Llanes. Behean, Tagliaferri (betaurrekoekin) Uriarte apezpikuarekin.

nen bidez zabaldu zen berria, baina egun berberan Zirarda Gasteizen zegoen, Erromarako bidaian izandako istripuen ondorioz hankan zuen mina artean sendatu gabe, eta apezpikuterian inork ez zuen Sebastian ikusi.

Jose Asurmendi Aramendia da aditzen den beste izenetako bat. Iruñeko San Cernin kalean jaioa, Tarazonako apezpikua da egun, eta euskara ikasten urtebete darama. Gasteizen eta Bilbon ere aritua da, eta Iruñean begi onez ikusiko lukete. Rosendo Alvarez Gaston Almeriako apezpikua ere

aipatu izan zuten hasieran. Urantzia ondoko Mues herrian (Berrotxa) jaioa da.

Horiekin batera Jose Maria Conget Jacako apezpikua dago kinielen artean. Iruñeko San Migel parrokan aritutakoa da, baina soilik bi urte darama Huescako hirian, eta horrek aukerak kentzen dizkio. Gonzalo Maria Fernandez Dueñaseko abatea ere aipatu izan da noizbehinka bai eta Jose Manuel Estepa kaperau militarrena ere. Izen hauetatik hirukote bat aterako da, eta azken hitza, beti ere, Erroman dute.

Gazteendako Zokoa

Lagopodo zuria

*Lagopus mutus*Anielarra eta Hiru
Erregeen Mahaian
Txuri-txuria

Hotzaren laguna

Eper gorriaren tamainakoa, oso luma trinkoak dauzka, bere bizilekuan dagoen hotzetik babesteko. Horretarako ere babes-
tuak dauzka atzaparrak. Neguan grisa da lumen kolorea, baina neguan txuri-txuria da, eta isatsa beltza. Apiril aldera berriro aldatzen zaio kolorea.

Ez du batere gustuko beroa, eta neguan ospelak bilatzen ditu. Izan ere, lagopodo zuriak, mendizaleek bezala, altura du gustuko. Kabiak 2.200 metrotik goiti paratzen ditu, eta nahiko ongi zabaldua dago Pirinioetan zehar. Agi denez, Nafarroan soilik Anielarra eta Hiru Erregeen Mahaia aldera topa daiteke, eta gutxi izanda ere, ez du aparteko arriskurik irauteko. Elurra asko izaterakoan Lapakiza eta Txamantxoiara ere hurbiltzen da.

Sei eta zortzi arraultze bitarte paratzen dituzte, maiatz aldera belarrean egiten dituzten zuloe-
tan, eta 23-24 egunetan erruten dituzte. Gogokoak ditu belarra, harkaitza eta elurra nahasten diren tokiak eta eguneko ordurik freskoenak bilatzen ditu beti janari bila joateko. Bertan bil daitekeen guztia jaten du: belarra, adarrak, intsektuak...



Euskara

ITZIAR HUALDE

Ikerketek diotenez euskara Iberiar Penintsula eta Europako hizkuntza zaharrena da. Kristo aurretik gaur egun arte elekatu den hizkuntza da. Bere jatorriaz teoria asko daude. Batzuek Europa guztian zehar elekatzen zela eta azkenean Euskal Herrian bakarrik gelditu zela esaten dute. Beste batzuek, ordea, Caucaso mendietako ingurutik datorrela diote, besteek Ur haranaren lurraldetatik (Arabiar Penintsularen ekialdetik), beste batzuek ordea Indiatik datorrela diote. Leku horietatik euskara etortzean teoria honetan oinarritzen da: Euskal hiztegiaren antzeko hitzak erabiltzen direla eta hango hizkuntzen egitura eta aintzintasuna antzekoak direla. Orain dela gutxi, ikertzaile batzuek euskara Adan eta Evak elekatzen zuten hizkuntza zela esan zuten. Teoria hauek ez daude ziurtatutak gaur egun ikerketak egiten dihardute-lako.

Lehen Euskal Herri guztian

elekatzen zen euskara, baina ez bakarrik Euskal Herrian, Katalunia eta inguruetan ere euskararen aztarnak aurkitu dira, gauza arraroa badirudi ere, egia da. Lehen (Karlomagoren garaian) Nafarroako erresunak orain baina lurralde gehiago zeuzkan. Oraingo Aragoa, Euskal Herria eta Gaztelauko konterriek osatzen zuten. Huescan, adibidez, 'Aran' izeneko haran bat dago, eta ez bakarrik hori. Nafarroako mendi askok lehen euskal izena zeukaten orain erdaldunduak egon arren.

Orain berriz asko galdu da euskara, gure hizkuntza lehen Nafarroa osoan elekatzen zen, orain, berriz, Nafarroako Iparraldean bakarrik, eta gainera ez iparralde guztian, Erronkari ibarrean adibidez, emakume batek bakarrik elekatzen zuen erronkarietaz, Fidedela Bernatek hain zuzen ere, eta zoritxarrez hil egin da.

Euskal Herrian Bizkaian, Gipuzkoan, Zuberoan, Nafarroa Beherean, Lapurdin eta Nafarroako iparraldean elekatzen da.

Leku guztietan euskalki ezberdina daude. Adibidez, larunbata esteko modu asko daude: larunbata, iakoitza, zapatua, ibakoi-tza...

Badago euskarari gorroto handia dion jendea eta euskararen aurka dagoena, baina nahi gabe euskal hiztegiak hitzak esaten dituzte: mandarra, zaborra... Batzuek katalana euskara baino gehiago elekatzearen edo ikastearen arrazoiak hau dela esaten dute: katalanak erderaren antza handia daukanez bederatzi hila-bete (gutxi gora behera) kostatzen da ikastea. Euskara berriz, urte asko, nahiko zaila delako. Nere ustez, norbaitek hizkuntza bat benetan ikasi nahi baldin badu, ez du kostako zaion denbora kontutan hartu behar.

Orain arte, urtez urte, eta poliki poliki euskara galtzen zihoan, orain berriz, badirudi gobernuak neurriak hartzen ari direla euskara indartzeko. Hori horrela izatea nahi baldin badugu, denek lagundu behar dugu.



BASAJAUN

Orain dela 50 urte eskas, Euskal Herriko karriketan automobilen bat azalduz gero gertakari handia zen bertan, bakan batzuen esku baitzegoen. Bere abiadurak, mantxoegia, ez zuen inolako ustekaberik sortzen paseatzen zebilenei edo jolasean ari ziren umetxoei, soilik zarata izugarriari esker antzeman baitzitekeen haien presentzia. Gaur egun gauzak asko aldatu dira. Diotenez, ongizatearen gizartean bizi gara, 'gehiago izan ahala gehiago nahi duen gizartean', nik esaten dudana bezala.

Orain dela 30 urte auto bat denon esku ez bazegoen, egun familia askotan hiru edo lau dituzte. Automobilak abantaila ukaezinak dakartza, edo behintzat hori esaten dute, baina, dudarik gabe, kotxeek arazo franko sortzen dizkiote gizarteari. Pasa den hilean, italiarrek gorriak ikusi zituzten kutsadura zela eta, ohizko kopuruetatik goiti. Horri aurre egiteko hartu ziren neurrien artean, egun batez ibilgailuen zirkulazioa debekatu zen. Horrek erakusten du ibilgailuek sortzen duten kalte ekologikoa.

Datu fidagarrien arabera, hirietako kutsaduraren % 60 ibilgailuek sortzen dute, horrek bizilagunengan sortzen duen kaltearekin. Halaber, 1989ko urrian jakinarazi zuten gidatzeko karneta ateratzen dutenen % 1 errepideak hiltzen dela. Kopuru izugarri honek gazte asko, karneta honen aurrean eduki beharko lezaketzen jarrerari buruz pentsatzera behartu beharko luke.

Gainera, ibilgailu hauek sortutako ondorioak mota askotakoak dira: kutsadura, errepideetan kalte ekologikoak, hirietan sortzen diren kalteak eta abar. Ba al dago bizikleta baino gauza erakargarriagorik?

Jenero Xumekoak

Andoni eta Koldobika aguretxean kontu kontari (II)

Bizitza auzikoa da, esangura askotakoa. Baina aguretxe hone-tatik ikusita, gauza bat besterik ez dela, esango nuke nik. Ez dakit bat zatozen nirekin, Koldobika. Bai, bai, Andoni. Nik ere gauza bat baino ez dela uste dut. Beno, orduan esan genezake gure ustea hori dela.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren, Basaburuan jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Ziri
2. Ernaia, bizia
3. Gailen
4. Guztiz eskasa
5. Ergel, xerbel

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A										
B										
D										

B	I	A	5	B	8	D	9	A	9	
B	4	D	7	D	10	A	8	D	3	
D	5	B	10	A	7	D	6	B	6	
D	1	B	3	A	1	D	8	A	2	B
A	4	D	2	A	6	B	2	B	9	A

Zaharrak berri

Horren ganitak baditi
bi aho.

Mingain gaiztoaz esana.

Luzaide

Kontzertu batean,
esaten dio emakumeak
senarrari:

—Begira lotsagabe
hori, zurrunka dago.

—Eta hori esateko
esnatu nauzu?

Bizi Bizian

Pasa den larunbatean Erreterian egin zen Euskal Herriko Bertsolari Elkartearen urteko bilkura, eta bertan Nafarroako elkarteak prestatutako txostena eztabaidatu zuten. Lurraldeetako txapeldunak Euskal Herri-

ko finalera zuzenean pasatzea zen eskaera bat, Nafarroa eta Iparraldeko bertsolaritza bultzatzeko. Proposamena atzeratu egin zen baina, «eztabaida sakona eskatzen duelako eta horretarako giroa ez zelako».

Xalbador berriro belodromoan

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Xenpelar etxean egindako urteroko biltzar nagusian balorapena eta egitarauaren aurkezpena egin zuen Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak, eta horien artean, akaso interesgarriena, aurtengo udazkenean izango den txapelketa nagusiaren gaia ere tratatu zuten. Aurretik irekia zegoen honi buruz ideia edo txostenak aurkezteko epea, eta pasa den larunbatean bi proposamen zehatz plazaratu ziren: bata Joxerra Bilbaok egindakoa, eta bigarrena Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarteak osatutakoa.

Hain zuzen ere, honek izan zuen bertan oihartzun handien, txapelketaren beraren filosofia-
ren aurka nolabait jotzen zuelako, lurraldekako bertsolaritza bultzatzearen truke. Proposamenak bi ardatz dauzka. Lehendabiziz, Txapelketa Nagusia lurraldeetako ordezkari bana joango litzateke zuzenean, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako txapeldunak, alegia. Bigarrenik, finala piramidal eran egingo litzateke. Hau da, zortzi finalistek goizean abestu eta arratsaldeko saiora soilik lau igaroko ziren. Azkenean bi bakarrik. Proposamenaren zioa garbi dago: onenen txapelketa egin beharrean Euskal Herri osoko partaideak bilduko lituzkeen bertso saio ederra



egitea, ahulen dauden lurraldeetan bertsolaritzari bultzada emateko.

BERTSOLARIENGANDIK OZTOPO HANDIENAK

Proposamena zuzendaritza batzordean proposatu zen, eta begi onez ikusi bazen ere, ideiak sakondu eta

Iaz Manolo Arozena lesakarra suertatu zen txapeldun bigarrenenak. Aurtengo lehendabiziko zazpiek Euskal Herriko Txapelketara joateko aukera izango dute.



luze eztabaidatzea erabaki zen. Aurretik bertsolariei beraiei ere aurkeztu zitzaizkien egitasmoa, eta oztoporik handienak beraien ar-

tean ikusi zituztela azaltzen du Lontxo Aburuza Nafarroako Bertsolari Elkarteak. «Kontuan hartu behar da bertsolariek

badutela interesik, eta txapelketan ere posizioak finkatuta dautzatela. Piramidal erak asko es-tutzen du partaidetza eta puntako bertsolariak, arratsaldeko saiora soilik lau igaroko baitira. Gainera, bertsolariak nekez onartzen du lurraldekotasuna bultzatu behar dela».

TXAPELKETA BAINO TOPAKETA

Proposamena Nafarroatik ateratzeari logikoa deritzo Aburuzak, «neketan edo ezinean dabilen herrialde batek bide berriak urratu behar dituelako», baina Nafarroarako ezezik Iparraldeko bertsolariei begira ere eginga dagoela dio. «Bertakoak ez dira inon ageri, eta gure proposamenaren bidez haien arteko lider bat aterako litzateke, Xalbadorren garaian bezala. Hori oso garrantzizkoa izango litzateke haien zati. Halaber, bertsolaritza ulertzeko eraz eztabaida bultzatu nahi dutela azaldu du elkarteak buruak. «Eztabaida heziketa moduan sartu nahi dugu. Txapelketa 'onenen txapelketa' gisa ulertu da, eta gurea topaketa, ekintza soziopolitiko edo sasi-txapelketa izango litzateke».

Nafarroako aurtengo txapelketari begira, bestalde, azpimarratzekoa da zenbait gaztek lehendabiziko aldiz hartuko dutela parte txapelketan, Estitxu eta Silveiraren bideari jarraiki, eta bertsolari 'zahar' batzuen agurra izango dela, Madariaga anaiek, Perurenak, Olaetxeak eta Jasok, kasu, ez baitute parte hartuko. Txapelketa martxoaren 7a eta apirilaren 4a bitarte egingo da eta oraindik dena erabaki gabe badago ere, Bera, Etxarri-Aranatz eta Heletan izango dira kanporaketak.

Finala zuzenean irrati bidez

P. U. / IRUÑA


Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala zuzenean entzuteko aukera izango da lehendabiziko aldiz, hiru irrati elkarranean burutu duten proiektuari esker. Baztango Xorroxin, Iruñerriko Euskalerria eta Nafarroa Behereko Irulegi irratiek, beraz, apirilaren 4ean Iruñeko Gaiarre Antzokian izango den finalaren bertsoen berri emango dute zuzenean.

Horretarako arazo teknikoak

daude, orain arte ez baitute hiruren artean horrelakorik egin. Izan ere, Xorroxin eta Irulegiren arteko lotura egina dute aspaldian, baina Xorroxin eta Euskalerriaren artekoa da osatu behar dena. Teknikariak bi irrati ongi hartzen diren toki baten bila ari dira, eta Olague eta Belate aldera aurkitu omen dute puntu hori.

Zuzeneko transmisio honek Nafarroa Beherea osoa, Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta Leitza aldera, eta Iruñerria eta Ultza-

ma hartuko luke, hiru irrati-tako partaideek aspaldidanik nahi duten elkarlana egia bihurtuz. «Lehendabiziko aldiz arituko gara elkarrekin hiru-rak» azaldu du Kike Diez de Ultzurrun Euskalerria irratikoak, «orain arte soilik asteroko edo garrantzi handiagoko berrieta-rako elkartu izan baikara. Hori dela eta, zuzeneko erretransmisio honen bidez, irratiaren arteko elkarlana bultzatzeaz gain, bultzada eman nahi diogu txapelketari berari».



Silveira eta Arozenari zenbait gazte gehituko zaie aurtten.

Idoia Iturri

Sanbolaria

«Irabaztea garrantzitsuena da»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Zer da sanboa?**IDOIA ITURRI.**— Judoaren antzeko borroka mota bat da. Judoan bakarrik aurkariaren ukondoa bihurtu dezakezu, eta sanboan txorkatila, belauna eta eskumuturra bihurtu ditzakezu.**EGUNKARIA.**— Gogorra ematen du horrek.**ITURRI.**— Ez da ematen duen bezain bortitza. Gure artean ez dago gorrotorik, lagunak gara, eta borroka bukatzen denean ez dago inolako arazorik gure artean. Judoa zein sanboa oso politak dira.**EGUNKARIA.**—

Eta bien artean zein nahiago duzu?

ITURRI.— Ni txiki-txikitik judoan aritu naiz, eta askoz gehiago gustatzen zait. Sanboa agian bortitzagoa da judoa baino, eta lurrean ematen duzu borroka.**EGUNKARIA.**—

Orduan, zer dela eta hasi zinen sanboan?

ITURRI.— Txapelketa gehiago jokatu ahal izateko sartu nintzen sanboan. Esan bezala nik judoa egiten nuen, eta egiten dut. Duela urte t'erdia sanboa egiteko aukera sortu zen. Txapelketetan parte hartzea asko gustatzen zait, eta judoa eta sanboa antzekoak direnez, sanboan ere aritzea erabaki nuen txapelketa gehiago jokatu ahal izateko.**EGUNKARIA.**— Zertan datza txapelketen erakargarritasuna?**ITURRI.**— Zuk gogor egiten duzu lan, gogor entrenatzen duzu, eta txapelketak lan horren ordaina dira. Txapelketetan aritzen nai-

zenezan gustura sentitzen naiz, eta irabaztean egin duzun lana merezi duela ikusten duzu.

EGUNKARIA.— Beraz, kirol hauetan ezin da esan garrantzitsuena parte hartzea denik.**ITURRI.**— Egia esateko ez. Irabaztea gustatzen zait, eta edonori gustatzen zaio. Gogor lan egiten duzu ia egunero, eta irabaztea garrantzitsuena da. Galtzen duzunean lur jota geratzen zara. Gero hurrengoan irabazi dezakezula pentsatzen duzu, eta tristura pasatzen zaizu, eta entrenatzeari ekiten diozu berriro ere.**EGUNKARIA.**—

Esan duzunaren arabera, duela urte t'erdia sanboan hasi zinen, hau da, urte t'erdian munduko txapeldun izatera heldu zara. Zein da zure sekretua?

ITURRI.— Garaipen hori ez da oso garrantzitsua, behintzat ez da garrantzitsuena. Atarra-

biako beste lagun bat txapeldunordea izan zen bere mailan. Garrantzitsuena sanboan gero eta jende gehiago aritzea da, eta nere garaipenak horretarako balio badu, askoz hobeto. Dena den, inolako sekreturik ez daukat. Sanboan aritzeko indarra behar duzu, malgutasuna, eta fondoak, denetatik pixka bat. Agian sekretua guzti hori lantzea da, asko entrenatzea.

EGUNKARIA.— Zenbat ordu entrenatzen dituzu egunero?**ITURRI.**— Egunero judoan ordu t'erdia pasatzen dut. Horretaz gain pesak egiten ditugu, eta sanboa lantzen dut. Entrenatzaileak horretaz gain gure kabuz korrika

Idoia Iturri atarrabiarra 19 urte zituela hasi zen sanboan, «judoaren antzeko borroka mota batean» alegia. Urte t'erdia geroago, 21 urte dituela, munduko Sanbo txapeldun izatea lortu du Moskun. Ema-

kumentzako eta inorentzako kirol bortitzegia denik ez du uste, eta egunero ordu t'erdia baino gehiago entrenatzen ematen du helburu bakarra lortzeko: garaipena. Hori da bere us-tez garrantzitsuena.



Judo eta sanbo nahasten ditu bere prestaketan Idoiak. OSKAR MONTERO

egitera eta horrelako gauzak egitera joan behar dugula esaten digu, baina...

EGUNKARIA.— Denbora asko da hori. Nola moldatzen zara lan egiteko eta entrenatzeko?**ITURRI.**— Ez dut inolako arazorik izaten. Nafarroako gobernuan lan egiten dut administratibo moduan, eta goizean bakarrik egiten dut lan. Arratsalde osoa Atarrabian ematen dut, Atarrabia klu-

bean. Sarritan horra joanen naitela bizitzera esaten diot nire entrenatzaileari, bizia han ematen dut eta.

EGUNKARIA.— Nolakoa izan zen munduko txapelketaren finala?**ITURRI.**— Errusiar baten kontra jokatu behar izan nuen finala. Oso indartsua zen, eta ezin nuen mugitu ere egin, baina azkenean irabazi nuen. Nazioartean errusiarrek nagusi dira. Munduan oro

Moskun, euskaldun bat irabazle atera zenezan, bandera eta himno espainiarra jarri nahi izan zuten, eta guk ezetz, ikurrina nahi genuela. Azkenean amore eman behar izan zuten».

har, sanboak ez dauka ospe handiegirik, baina Errusian nagusi da, sanbolari hoberenak hangoak dira. Nazioartean jokatu dugun beste txapelketa bertan jokatu genuen, Moskun.

EGUNKARIA.— Jakin dugunez, Euskadiko Sanbo Federazioaren ordezkariak iskanbilaren bat izan zenuten txapelketa horretan.**ITURRI.**— Bai. Euskadiko Sanbo Federazioak ez dauka zerikusirik Espainiako federazioarekin. Moskun bizi duten egoera berri latza dela eta, antolatzaileek ez zuten inolako arazorik nahi, eta euskaldun bat irabazle atera zenezan bandera espainiarra eta espainiar himnoa jarri nahi izan zuten. Guk ezetz, ikurrina nahi genuela esan genien. Azkenean amore eman behar izan zuten, eta ikurrina jarri ziguten.**EGUNKARIA.**— Zer egin behar duzu nazioarteko txapelketa batean parte hartu nahi baduzu?**ITURRI.**— Urtero Euskadin lau txapelketa jokatzeko dira, eta horietan lortu behar duzu nazioarteko txapelketetara joateko txartela. Irabazle izan arren gerta daiteke txartelik ez edukitzea, selekzionatzaileek erabakitzen baitute nor joaten den eta nor ez.NOSKI
JATOR

ZVLD* ERDA

